

GOGOAN HAR ZAITZU

JONDONI PAULOK ERRATEN ZITUEN HITZAK :

« Anaia maiteak, ikhaszaitzue Erlijioneko egiak eta elgar susta zazue ongiaren egiteko, Psalmoak, Himnoak eta Kantikak kantatuz debotki, Jainkoaren ohoretan. »

MISIONETAKO

ETA LEHEN

KOMUNIONETAKO KANTIKAK



PAUEN

« Imprimerie Catholique »

LESCHER-MOUVOUÉ BAITHAN IMPRIMATUA

Prefekturako karrikan, 11

1909





Zer da Misioenea ?

Misioenea da Jainkoak emaiten duen graziarik baliosena arimen salbatzeko. Misioearen graziaz abusu egitea, zorigaitz bat da khasik ezin erreparatuzkoa. Erraiten ahal da, hortakotz Jesusek bi hiri madarikatu zituela: Vœ tibi Betsaida, vœ tibi Corozain. Prepara zaite beraz kartsuki misioearen egiterat.

Zer egin behar da Misioenez ongi baliatzeko ?

Oroen gainetik predikuetarat jin haste hastetik, ezik, orduan du Jainkoak bereziki hunkitzen bihotza. Erdiak eta bat bederen gehiago entzun behar dira misioearen irabazteko.

Othoitz kartsuak egin, ahalaz jin mezaren entzuterat egun guzietz.

Utzi berehala bekhatuzko okasione guziak.

Ongi bere burua etsaminatu ; eta bizi guziko, hala behar bada, edo bederen denbora batetako kofesioa egin ahal bezain laster, gero ardura edo egun guzietz komuniatzeko.

Jainkoari galdatu zoin den zure deia edo bokazioa ; haren kontra juanez heldu beitira zorigaitz handienak mundu huntako eta bertzeko.

Ez dira oraino horiek aski .

Misioenea ez da bakharrrik zombait egunez elizan eta debozioean ibiltzia. Ordutiki behar tutzu hartu usaia onak eta bekhatuko bidetik segurkiago beiratzeko, eginak diren konfrarioetan sarthuko zira. Lehen lehena, baliosena da Tiersordria, gero Mariaren Kongregazioea, Arrosarioko eta Jesusen Bihotz sakratuaren konfrarioa. Huntan oro sar ditaizke eta sarthu behar dira ere, eregelamendua errecha egina beita, eta Eliza Sainduak hainitz desiratzen beitu.

Zer chede hartu behar duzu Misioenea finitzean ?

Bethi zure othoitzeri jarraikiko zarela. Bi hamarreko edo bederen hirur « Agur Maria » erranen di-

tutzula egun guzietz Ama Birjinari bekhatu lolieta-rik beira zitzan.

Meza saindua igande guzietz entzunen duzula, soldadoko demboran ere nehundik ahal baduzu, nehorren beldurrik gabe. Bezperetarat ere juanen zirela, eta ez bazaitezke juan, etchean arrosario eta irakurtze on bat eginen duzula igandearen sainduki iragaiteko. Jainkoaren eguna ez profana kurri ibiliz.

Beiratuko zirela okasione tzar guzietarik, hala nola: dantzetarik, buruz buru egoitetik, berant eretiratzetik.

Astia duzun guzietz meza saindurat jinen zirela aste egunarekin, eta lehiatuko zirela aldi oroz komuniatzerat, Elizak erraten daukun bezala. Ez duzu bederen huts eginen sekulan hilabetean behin komuniatzea ahalaz lehen ortziraletan.

Gure zaharrek bazituzten liburu ederrak eta kharrioak ere: Meditazione handiak eta ttipiak, Ebanjelioa, Imitazionea. Philotea, liburu baliosa, sainduen bizia. Hek irakurtuz izan dira Girichtino hazkar eta fededun, eta deusek ez du khendu ahal izan erlisionea gure eskual-herritik. Nor du orai gaztetan liburu hetarik irakurtzen? Horra zertako dugun debozione ttipia eta errorik gabekoa. Eros beraz liburu hetarik eta irakur bederen igandetan.

Hola egiten baduzu frogia izanen da Misionez ontsa baliatu zirela.

Gazte maiteak, ez joan herritik urrun muthil eta neskato hiri handietarat bereziki, eta guziz Ameriketarat. Gehienak han miseria handian, bai arimako bai gorphutzeko bizi onen dira. Hala diote gizon zuhurrek. Joan behar bazaizte ere joan jende ezagutueta, eta orhoit badirela hirietan zuen errezebitzeko etchiak gastu gutirekin. Han sartzeko behar duzu izan Jaun erretoraren letra bat.

Nechkatuak, izan zaitezte modest zuen arropetan. Behin despendua hasi eta ez diteke gibelerat jin. Izan obedient, amodiotzu zaharrentzat.

Muthikuak, erretira goizik etcherat, has gazterik zombait sos bazterrat emaiten, eman zaitezte Gazteria Katolikoa deitzen duten Batasunean edo zozietatean.

Aita eta amak, orhoit zuen eginbideak sekulan baino handiagoak direla. Behar duzue jakin lehen lehenik eian zuen haurrek deusere gaizkirik ikhas-ten duten eskoletan Halakorik balitz, behar duzue Jaun eretorekin elgaraditu eta Jaun aphezpikuaren manuari baitezpada obeditu.

Irakasotzute etchean katichimaren hitzak.

Handitzearekin ez sekulan utz zuen menekorik okosionetan, bertzela zuen gain Juanen dira heien bekhatuak. Ez utz ahalaz urrun joaitera herritik. Achikazue bakea etchean, eman etsemplu eta konseilu onak bethi.

Badakizue zer importantzia handia duen egungo egunean bozaren ontsa eta gaizki emaitiak. Hortarik heldu dira lege on eta tzar guziak Erlijioneari buruz: bai eta Frantziarentzat ere. *Orok* jasan behar dute bozkatze harren ondorioa; ez beraz sal diruarentzat ez bertze zernahi intresentzat. Orhoit zaite Jaun Aphezpiku Jauffretek ichkribatu duen hitza: Hemen emaiten den boza Jainkoaren tribunalean agertuko dela.

Jesusen Bihotz sakratuaren konfrarioaz

Badakigu orok zombait Jesu-Khricitok berak galdengin duen ohora dezagun harren Bihotz Sakratua. Erran dauku debozione horri Jarraikitzen diren presuna guziak salbatuko dituela. Horra zertako Hasparneko lehen Misionestek establitu zituzten khasik herri guzietan Jesusen Bihotz Sakratuaren Konfrarioak. Gero erreberitu dute oraino debozione hori bera bertze molde batean: Apostolat de la Prière deitzen duten Konfrarioan. Biek galdetzen dute egun guziez egitea bihotzaren emaitza bat edo konsekracione bat; bertzalde lehenak gure aita, agur Maria, sinhesten dut; bigarrenak aldiz hamarreko bat. Gero biek

erekomendatzen dute hilabete guzietz komuniatzea eta bederen bederatzi hilabetez lehen ortziraletan.

Bainan 1870ko gerla izigarriaren ondotik, Franzia-ko Girichtino on guzietz ezagaturik zoin hobendun zen gure herri dohakabea, galdegin zuten Parisen Montmartreko gainean egin zadin Eliza bat ororen diruarekin, barkhamendu galdegiteko gure bekhatu guzietz. Deputatuek berek onhetsi zuten gauza hori, eta hortako bozak eman.

Egina da orai eliza eder hura, eta hartan Aita Sainduaren baimenarekin establitu izan da Franzia-ko bereziki bainan ere mundu guziko. Jesusen Bihotz Sakratuaren *Archikonfrarioa*. Bi chede baitu konfrario horrek 1^a Aita Sainduaren libratzea etsaien gathibotasunetik, 2^a Munduaren eta guzietz Franzia-ko salbatzea, debozione horren medioz. Hořtarakotz guziak gombitatuak gira hortan sartzera eta huna kondizioneak.

Badira hiru grado.

1^{an} Emaiten da bere izena eta gero hitz emaiten egun guzietz erranen direla: Gure Aita, Agur Maria, sinhesten dut, eta othoitz labur hau — *Jesusen Bihotz Sakratua zuri konsekratzen naiz osoki, beira zazu Eliza saindua bere etsaietarik, urrikal zaitte Franziaz eta egizu maitha zitzadan bethi gehiago.*

2^{an} Nola Eliza hortan egiten baitha urthe guzian egun eta gau guzietz Sakramendu Sainduaren adorazionea, hitz emaiten da chede beretarat, hilabetean behin oren batez edo bederen oren erdi batez eginen dela, ahalaz elizan edo bertzenaz etchean adorazione hori Aita Sainduak nahi luke gizonek ere egiten balute. Adorazione horren egiteko hainitz herritan hautatu dituzte hiru garren igandetako bezperak.

3^{an} Hitz emaiten da bertzeri ere debozione horren emaitera entseiatuko dela.

Ez da deus hitzemaiten bekhatuen penaren azpian.

Misionetako eta lehen Komunionetako

KANTIKAK

Zato, Izpiritua

Errepika

2

Zato, Izpiritua,
Kreatzaile saindua,
Bisita zatzu hotzak
Othoi gure bihotzak.

Zuk fidelen bihotzak
Berotzen tutzu hotzak,
Hek argitzen dohainez,
Grazia miragarriez.

1

3

Bethe zatzu graziez,
Zerutik egorriez,
Gure adimenduak
Zeronek formatuak.

Oi, Jauna, urrun zazu
Satan, etsai dorphea ;
Er-aguzu bakea,
Ontasun hain maitea.

Misionen ethortzeaz

1

2

Misionen ethortzeaz
Jauna dela laudatu.
Helas ! hauen eskasiaz
Hainitz dira damnatu.

Bozkharioetan sarthu
Behar gira, Kristauak ;
Zeruak zabaltzen ditu
Onthasun handienak.
Kristau.

Errepika.

3

Kristau leialak zatozte
Laster misionerat.
Jainkoak deitzen zaituzte
Harekin baketzerat.


Egun hautan, salbatzeko,
Egin ahal guziak.
Bizitzez khambiatzeko
Galda orok graziak
Kristau.

4
Adi zak, bekhatorea.
Jainkoa zaik mintzatzen.
Bekhatuen dolorea
Phizteaz hau herchatzen.
Kristau.

5
Bekhatu guzietarik
Behar haiz, bai, urrundu
Hekietan hagolarik,
Ez bahaiz nahi galdu.
Kristau.

6
Salbatu nahi bagira
Ez da bertze biderik.
Urrundu beharko gira
Urhats galkorretarik.
Kristau.

7
Ai, hi ! bekhatu gaitchtoa
Hiretu nauk ondikotz.
Galzaile ifernukoa
Habilkit sekulakotz.
Kristau.



Gauza beraz

Errepika.

Eman ditake: Oi mirakuilu-aren airean.

Zato, bekhatorea, zato Elizarat,
Jainko Jaunaren hitza funski aditzerat (*bis*).

1. Bekhatuen neurria bethe ez dezazun.
Adi zazu Jainkoak zer erraiten dautzun.
Ez egon bekhatuan ez egon luzaro
Damu izan ez dezazun alferretan gero.
2. Bekhatua ariman lokhartzen bazare,
Menturaz ifernuan atzarriko zare.
Urterik aski Jaunak zuri eman daitzu,
Eta denak bekhatuatuz zuk bethe ditutzu.
3. Misione saindu huntan ontzen ez bazare,
Ifernuko su gaitzean geldituko zare.
Hau danteke jaunaren azkeneko deia ;
Eta agertzen dautzu zu salbntu nahia.

Eskerren emaiteko Misioneeaz

Errepika

Dugun bethi lauda {
Jaunaren onthosuna { *bis.*

1. Eskerrak Jainkoari
Zeren misioneeak.
Deraizkun igorri
Dohain oroz betheak
2. Artzain on bat bezala
Gal giten beldurrez.
Ondoan bethi dabila
Gure bildu beharrez.
3. Etsaiak maluruski
Gintuen hatzeman.
Eta hainitz ezarri
Ifernuko bidean.
4. Bainen Salbatzaileak
Gure libratzeko,
Ifernuko sareak
Ditu phorroskatuko.
5. Nork ez du maithaturen
Jesus guziz ona.
Nork ez du goretsiren
Bihotzik leyalena.
6. Haren eztitasunak
Zinez nau hunkitzen.
Haren eztitasunak
Osoki nau beretzen.

Salbamenduaz

1. Othe da deus nesesario denik
Mundu huntan, baizen salbatzea ?
Ez ahal da halako zorionik
Nola zeruetara heltzea.
2. Mintza zaite, Jaun ona, hemen nago
Ekharria zure entzutera :
Zure nahia dut komplitu gogo ;
Othoi, zato ene borthiztera.
3. Uzten ditut guziak zure gatik,
Ezin duket zu gabe plazerik ;
Amodioz zabiltza sustaturik
Ene bilha, zeruik jautsirik.
4. Urrun beraz ene ganik mundua,
Ez, ez natzaik nihoitz jarraikiko ;
Egin diat orai ene hautua,
Jainko Jauna bethi maithatzeko.
5. Ikhuzten dut zerua zabaldua :
Han behar naiz egun batez sarthu ;
Edo dago enetzat ifernua,
Baitezpada nahi naiz sa batu.
6. Erre bekit bihotza zure suaz,
Ah ! indazu zure sokhorria ;
Arnegatzen dut, Jaun ona, mundua
Izaiteko zeruko loria.



Bekhatuaz

1. Zure kontra naiz altchatu,
Zeru lurren Nausia ;
Zure kontra naiz harmatu ;
Hau da atrebenzia !
Oi ! nola. oi ! nola
Mundu huntan kontsola !

2. Bathaioak Jainkoari
Ninduen kontsekratu !
Bainan laster etsaiari
Bekhatuak libratu.

Oi ! nola, etc.

3. Aldarearen oinetan
Egin tudan botuak,
Ene hobenez miletan,
Ditut ostikatuak.

Oi ! nola, etc.

4. Zer ez duzu, zuk, enetzat
Egin, Jesus majtea !
Noiz izanen naiz zuretzat
Ezagutzaz bethea !

Oi ! nola, etc.

5. Damuz, urrikiz zaurthua,
Heldu naiz zure gana,
Izan bedi borratua
Bizitze iragana.

Jaun ona, Jaun ona,
Ah ! ez ni abandona.

6. Ene arima gaichoaz
Izan urrikalmendu :
Ene bizitze gaichtoaz
Oi ! othoi, barkhamendu.

Jaun ona, etc.

7. Zin zinez naiz gambiatzen,
Bai, memento beretik,
Zuri nitzaitzu emaiten
Bihotzaren erditik.

Jaun ona, etc.

Jinkoaren deiaz


1. Itzul adi, itzul, bekhatorea,
Jainko Jaunak deitzen hau arraiki,
Estima zak hitaz duen galdea,
Eta emok bihotza osoki. (*Berritz*).
2. Bethiere, hire huts guzietan.
Egin daiat pietatez oihu ;
Ene gana deithu haut hambatetan.
Bainan hago gogor eta mutu. (*Berritz*).
3. Zer da, errak, nik egin ez dudarik
Hi gaizkitik gibelarazteko ?
Hambat argi izan duk ene ganik :
Hauk guziak, hi zeruratzeko. (*Berritz*).
4. Zeren gatik nauk bada ofentsatzen ?
Nazki, guziz ona naizelakotz.
Hain gogorki zergatik nauk tratatzen,
Ez nauk maite, maite hautalakotz ? (*Berritz*).
5. Bizitze hau ez duk amets bat baizik,
Hil behar haiz eta noiz ez dakik.
Ez daroat nik agindu gerorik ;
Ez asterik, ez eta orenik. (*Berritz*).
6. Izanen haiz egun batez zeruan
Edo dukek bethiko zortha
Tormentetan, supean, ifernuan ;
Eta ez duk gogoan hiltzea ! (*Berritz*).

XXXXXX

Heriotzeaz

1. Zer dire gure egunak ? Zer da gure bizia ?
Itzalaren pare dire, nun dugu zuhurtzia
Asegin iragankorei bihotza largatzeaz
Akabo da laster gutaz, orhoit gaiten hiltzeaz.

2. Hobira, gare hurbiltzen, sortzen garen ordutik ;
Héριοak, gure bortcha, garamatza mundutik ;
Baratzetako loreak histen diren bezala,
Hola da gure bizia suntsitzen berehala.
3. Oi ! ez dugu zeren erran gazte, sendo garela,
Herioa gure ganik oraino urrun dela.
Sarri lur barnean daite bizi uste duena ;
Nork daki noiz izanen den gure azken orena ?
4. Herioak nihor ez du munduan urrikari ;
Bakhotchari nahi dio, bere muga, jazarri ;
Chumeak eta handiak ditu bere-ganatzen,
Guziak, arte laburre., herrautsetan ezartzen.
5. Zerentzat gintuzke beraz munduko fagoreak ?
Laster utzi behar diren ontasun, onoreak ?
Arbuia dezagun lurra, eta bilha zerua ;
Han du baxharrik aurkhitzen bihotzak deskansua.
6. Zer zorte erdiragarri bekhatuan hiltzea !
Zer zorigaitz ! zer kaltea arimaren galtzea !
Begira gaitzatzu, Jauna, heriotze gaichtotik,
Eternitate guzian erretzen egoitetik.
7. Ondikoz ! merezi tugu gaztigu garratzenak.
Othoi, ahantz bekizkitzu, Jauna, gure hobenak.
Hel zakizkigu, Birjina, gure behar ordutan,
Guziz, ó Ama maitea, hiltzeko orenean.



Jujamendu partikularratz

1. Zuen heriotzeaz funtski orhoitzerat,
Lehia zintezkete ongi bizitzerat ;
Muga lazgarri hura dago hurbildua ;
Halarik ez duzue higuintzen mundua.

2. Ethorri bezain laster hiltzeko orena,
Oren, sainduak berak lazten dituen.
Juge justuak bainan ikharagarriak.
Nahiko tu punitu zuen bekhatuak.
3. Ez da zeren orduan laguntza bilhatu,
Auzo, ahaidetarat oihuz abiatu ;
Ez du nihorik izanen urrikalmendurik,
Ez zaitzue emanen kontsolamendurik.
4. Etsitu beharko da zeruko graziez.
Baita mundu huntako fagore guziez ;
Zuen barkhamendua, nigar marrasketan,
Galdeginen duzue, bainan alferretan.
5. Dezagun beraz maitha sainduen Saindua,
Eta higuin bihotzez, bethikotz mundua.
Oi ! ez bekigu ahantz hil behar girela,
Eta berehala Jujamendua dela.



Jujamendu jeneralaz, Aditzen da trompeta.

1. Aditzen da trompeta latzgarria,
Ethorri da Jaunaren egunan,
Egun trichte, egun lotsagarria,
Bai egun guzien handiena.

Errepika : Aditzen da.

2. Ihurzuri eta chimista pean
Lehenago Janna mintzatu zen ;
Bainan egun bere majestatean
Handiago guziei da agertzen.

Errepika : Aditzen da.

3. Aspaldi lur bihurtu haragiak,
Erhaustuak ziren hobietan,
Bat eginik, ichtant batez guziak,
Phizten dire, chutituz batean.

Errepika : Aditzen da.

4. Aingeru onek emaiten dituzte,
Merezitu duten arabera,
Gaichtaginak eta onak bi parte
Jesus-Kristoren bi aldetara.

Errepika : Aditzen da.

5. Hobendunak ezkerreko aldetik
Ikhusten du Juge hasarrea ;
Eta onak Jaunaren eskuinetik
Bake osoaren beithartea,

Errepika : Aditzen da.

6. Errabian, ahalkez estaliak,
Gaitchtaginak marrasketan daude ;
Non zareté, lurak eta mendiak ?
Othoi, hemen smtsi gaitzatzue.

Errepika : Aditzen da.

7. Ifernuak, erraiak idekirik,
Diotzote, irets baginitza !
Bainan egun Jaunaren begitarik
Ez diteke, ah ! nihor geriza.

Errepika : Aditzen da.

8. Orduraino gordeak egon diren
Krima beltzak eta itsusiak,
Agertzen tu guzien bichtan hemen,
Zeru lurren errege handiak.

Errepika : Aditzen da.

9. Ilhumbetan, baxharrik sekhetuan
Egin krimak han agertzen dire ;
Bihotzean eta izpirituan
Egin izatu direnak ere.

Errepika : Aditzen da.

10. Zohazkidate, ah ! madarikatuak !
Zohazkidate urrun ene gauik !
Sekulako surat kondenatuak,
Erretzerat Zoaste orai danik.

Errepika : Aditzen da.

11. Itzultzen da eskuineko alderat,
Guziz arrai Jaunoren Bizaya.
Ichurtzen du justuen bihotzerat
Boskario guzien ibaia.

Errepika : Aditzen da.

12. O ! zer gozo aditzean : Zatozte,
Ene aitaz benedikatuak,
Har zazue ene lorian pharte :
Harzatzue zuen khoru, tronuak.

Errepika : Aditzen da.

13. Ichtantean zerua da zabaltzen.
Ta justuak, arim' eta gorphutz.
Bozkarioz gairi dire alehatzen,
Izaiteko han bethikotz urus.

Errepika : Aditzen da.

14. O ! egun segur bezain latzgarria !
Zein aldetan ikhusi behar nauk ?
Bekhatoros hain latzgarria !
Hire biziak erran behar dauk.

Errepika : Aditzen da.

Ifernuaz

1. *Galdea*

Kreatura damnatua,
Zerk hauen tormentatzen,
Zer den hire ifernua,
Hire penak zer diren,
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

2. *Ihard stea*

Ezin erran dirot hitzez
Zembat dudan sofritzen;
Ene dolore borthitzez
Hasten banintz mintzat-
Flakoak, flakoak, [zen,
Litezke hitz guziak.

3. *Galdea*

Ez badezakek esplika
Zembat dukan pairatzen,
Senditzen dukan bezala
Erdizkache bederen,
Erraguk, erraguk,
Argitu nahi gaituk.

4. *Ihardestea*

Ene zoritgaitzak ez du
Helas! bertze neurririk
Jainko guziz botheretsu
Baten kolera baizik;
Bethikotz dohatzu
Izan nintekelarick.

5. *Galdea*

Hire pena zertan datza,
Zerk darozkik zilhatzen
Arima eta gorputza?
Has hadi bad'agertzen
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

6. *Ihardestea*

Gorputzak eta arimak
Ditu bethi erretzen
Su orotan borthitzenak;
Bainan ez kontsumitsen;
Sua dugu heinen
Jaten eda edaten.

7. *Galdea*

[rak
Su latzgarri horren khar-
Zembat iraun behar du?
Pairamen horren indarrak
Noiz behar du jabaldu?
Erraguk, erraguk;
Argitu nahi gaituk.

8. *Ihardestea*

Ez diro deusek iraungi
Behin phiztu deuean;
Iraun beharko du bethi,
Bethi indar berean,
Jaunaren kolera
Buhatzen duen suak.

9. *Galdea*

Zer lekhu den ifernua,
Zer dukan hor ikhusten ;
Nortaz haizen lagundua,
Nork duen hor manatzen ;
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

10. *Ihardestea*

Ifernua da leze bat,
Satanen erresuma ;
Jaunak aurrhiki du hunat
Gaitz guzien bilduma ;
Mustro belzik baizen
Ez da hemen ikhusten.

11. *Galdea*

Hire pena guzietan
Zein da latzgarriena,
Gebienik hire baithan
Erdiratzen hauena ?
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

12. *Ihardestea*

Orhoitzean, ene faltaz
Gabetua naizela,
Bethikotz, ene Jainkoaz,
Erhotu bat bezala
Dolorez, changrinez
Jartzen naiz, haren minez.

13. *Galdea*

Zertako haiz hi orhoitzen
Galdu dukan Jainkoaz ?
Zergatik ez duk etsitzen
Haren amodioaz ?
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

14. *Ihardestea*

Higuintzera bortchatua
Naizen Jainkhoa gana
Ez dakit zerk, herchatua,
Instant oroz narama ;
Bethi bereganik
Urrutzen nauelarik.

15. *Galdea*

Nola dukan merezitu
Jaincoaren kolera,
Zeren gatik kondenatu
Hauen supliziora,
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

16. *Ihardestea*

Dela madarikatua
Sorthu nintzen eguna,
Eta lehen bekhatua
Egin izan nuena !
Krima hark, ondikotz,
Galdu nau sekulakotz.

17. *Galdea*

Bekhatu mortal bakhar
Aski bada galtzeko, [bat
Milak' egin tuztenentzat
Zer pena othe dago ?
Erraguk, erraguk ;
Argitu nahi gaituk.

18. *Ihardestea*

Gaztiguen hedadura
Gaichtoek, leze huntan,
Beren krimen arabera
Behar dituzte jasan,
Fin gabeko penak,
Ez ordean bardinat.

Kontrizioneaz

Airea : Voici les jours de la miséricorde.

1. Ah! ni naiz ni, bekhatore tristea!
Ni gaichtaguin, ni bihotz gabea!
Hilarazi zaitut Jesus maitea:
Zu, nere biziaren jabea!

Errepika : Hilarazi zaitut Jesus maitea,
Zu, nere biziaren jabea.

2. Zu zein ona zinen nakielarik,
Urrun egon naiz, Jauna, zutarik.
Galdua, trebes, nindabilalarik
Othe nukeien nihun bakerik?
Hilarazi, etc.

3. Ahalke naiz beguien altchatzeko
Bainan zu zaizkit urrikalduko,
Kurutzetik barkhamendua franko
Merezitu duzu neretako.
Hilarazi, etc.


4. Zein erorkorra naizen badakizu,
Othoi Jauna altcharaz nazazu.
Niri barkhatzeko hil baitzare zu,
Zuk Jesus zuk salbaturen nauzu,
Hilarari, etc.

XXXXXX

Gauza Beraz

Errepika : Barkha, Jauna! bai, dolu dugu
Zu hambat ofensaturik,
Othoi, urrikal zakizkigu
Ostia saindu hortarik.

1. Aithortzen dugu zaitugula
Hainitz eta hainitz laidostatu,
Zure ongiak ditugula
Mila mila bekhatuz pagatu.
2. Zeru ederra dugu hetsi
Zure kontra egin bekhatuez,
Ifernua dugu merezi
Gure krima ikharagarriez.
3. Salbatzaile guziz saindua!
Zure kontra gira gu altchatu,
Hastio duzu bekhatua,
Eta guk bekhatua maithatu.
4. Zu hain on, hain maithagarria,
Oh! zombat zaitugun ofentsatu!
Dolu dugu, Jesus eztia!
Nahi gira zinez konbertitu!
5. Kurutzean hil izan zira
Oinhazetan, o Jesus, gu maitez!
Zu maithatzen ariko gira
Gu ere bethi, Jauna, ordainez!



Jesus Kurutzera

1. O Jesus Kurutzera
Ni gatik igan zarena,
Ene gaztigatzera
Maiz behartzen zaitudana,
Orai zure aldera
Bihurtzen naiz Jainko ona

Errepika :

Ah! orhoit zaite odola
Enetzat eman duzula!

2. Zure, amodioak
Ez banau, Jauua, salbatzen,
Ene bihotz gaichtoak
Sutara nau kondenatzen :
Zure jujamenduak
Bortizki nau ikharatzen.


Ah ! orhoit, etc.

3. Behar nuen bizia
Eman Kreatzaileari !
Eman diot guzia
Gaichtoki kreaturari.
Itsumendu handia !
Ifernua dut merezi.

Ah ! orhoit, etc.

4. Hambat duzu pairatu
Ene gatik kurutzean !
Nola tuzket maitatu
Atseginak mundu pean.
Nahi naiz kambiatu ;
Urriki dut bihotzean.

Ah ! orhoit, etc.



Uhalde baten (ADÉMA)

I

Uhalde baten pare,
Orai bekhatuak
Gaindiz bazter guziak
Ditu hondatuak ;
Non dire fededunak
Non dire justuak ?

Azken eguna hurbil
Othe du munduak ?

Errepika :

Othoi, Ama maitea,
Urrikal zaizkigu ;
Jaunaren hasarrea
Othoi ezti zazu.

2

Gizonen erreboltez
Hasarre Jainkoa
Bere azotearen
Higitzera doha ;
Nor da iduk dironik
Jaunaren besoa ?
Zu, zare, zu, Maria,
Indar hartakoa.

3

Nor da gure artean
Erran dezakenik :
Jainkoak ez nau joko,
Nik ez duk hobenik.
Zuk dirozu, Maria,
Hain garbi izanik,
Gure grazia ardiets
Jainkoaren ganik.

4

Jaunaren justiziaz
Ikharetan gaude,
Othoi, Ama, jar zaite
Zure haurren alde ;

Haren gana nor hurbil,
Nor ager zu gabe ?
Zu zaitugu zu haren
Bihotzaren jabe.

5

Jauna, aithorzen dugu
Gutarik hainitzi
Zuri zer zor ginautzun
Zitzaikun ahantzi ;
Fedea dugu hambat
Ttikitzerat utzi ;
Eskualdunaren ganik
Hori zaitzu gaitzi.

6

Lehengo fede hura
Berritz pitz dakigun,
O fededunen Ama,
Zuk gaizatzu lagun.
Hots ! Eskualdunek he-
Hitzeman dezagun [men
Bethi zinez izanen
Garela fededun.


XXXXXX

Chede onez

1. Huna, Jauna, ardi bat galtzen zena,
Ez bazin du izan urrikari ;
Bainan orai zure eztitasuna,
Agertzen da nere arimari.

Errepika : Zure ganat, oi ene Artzain ona,
Graziak nau egun erakharri (*bis*).

2. Mundu pean, ondikotz ! nintzen galtzen.
Eta bizi nintzen alegera ;
Bainan non da, oi ! Jauna, zutan baizen
Egiazko bihotzen plazera ?
3. Ikhusten tut ene erhokeriak ;
Hainitz aldiz zaitut ofensatu.
Barkha zatzu ene hoben guziak ;
Urrikiaz nahi tut borratu.
4. Helas ! Jainko guziz ona zarena,
Berant zaitut, berant ezagutu ;
Berant zaitut, gauza guzien Jauna,
Mundu huntan egiaz maitatu.
5. Zure ganik ez penek, ez plazerek
Ni ez naute nihoiz urrunduren ;
Ez hiltzeko herstura handienek
Zu laudatzetik gibelaturen.



Manamenduez

Errepika : Orai danik bihotzetik,
Nahi naiz khambiatu ;
Salbatzerat seindutzerat
Nahi naiz lehiatu (*bis*).

1

Ukho bekhatuari,
Utz haren bidea,
Jarraik berthuteari ;
Hartan da bakea.

2

Orhoitu salbatzeaz ;
Zer da presagorik ?
Bai eternitateaz ;
Zer beharragorik ?

3

Zure salbamendua
Nahuzu obratu ?
Jainko-lege saindua
Behar da komplitu.

4

Jainkoa behar duzu
Maithatu osoki,
Hura adora zazu,
Othoitzaz, debotki.

5

Haren izen saindua
Dugun errespeta ;
Buroa, zin faltsua,
Haren kontra baita.

6

Jainkoaren iduriko
Egina denari,
Ekhar zuk amodio,
Nola zeroneri.

7

Igaud' egun guziak
Emoitzu Jaunari ;
Entzun meza, bezperak,
Jarraik elisari.

8

Phest' igandean zaite
Urrunt ostatutik ;
Zuretzat han ez daite
Gasturikan baizik.

9

Tenorez bil etcherat ;
Zer da hain ederrik !
Ez luzatu gerorat !
Gabak ez du onik !

10

Maita zure ait' amak,
Maita bihotzetik ;
Onhets heiek erranak,
Obedi gogotik,

11

Beren behar ordutan
Zaitzu hek sokhorri ;
Zahartze-egunetan
Egin ongiethorri.

12

Obraz ez nahikundez
Ez jazar nehorri ;
Bainan bai bihotz onez
Barkha etsaiari.

13

Gogo, hitz, et' obretan
Beira modestia ;
Zure menekoetan
Atchik larderia.

14

Ez ebats bertzerena
Ez hartaz zu jabe.
Hartua dukezuna.
Itzul luza gabe.

15

Beira zaite arthaski
Medisentziatik,
Et' oraino hobeki
Kelomniatzetik.

16

Zuena ez daitena
Zuk ez gutizia ;
Arthatuz dukezuna
Ereman bizia.

17

Hurbil kofesatsera
Ahalik maizena,
Bai komuniatzera :
Hor da gure ona.

18


Egin zaitzu barurak,
Ahala baduzu ;
Bekhatuen makhurrak
Hola chuchen zaitzu.

19

Meheko egunetan
Ez jan haragirik ;
Ez eman ingurutan
Etsemplu gaichtorik.

20

Hol' eginez, bizia
Duzu saindutuko,
Zeruetan, Maria
Hola kausituko.



Bihotz Jesus Maitearena

1. Bihotz Jesus Maitearena,
Graziaren ithurria,
Hemen naiz. Bihotz samurrena,
Zure ganat ethorria.

Errepika : O ezin aski laudatuzko
Bihotz garbi, sakratua.
Noiz zaitut bada maithatuko !
Zerk nauka sorhaitua.

2. Bihotz enetzat sustatua.
Berant zaitut ezagutu ;
Bihotz ezti, preziatua,
Helas ! ez zaitut maithatu.

O ezin, etc.

3. Alferretan nauzu bilhatu.
Bihotz bethi zabaldua,
Zure ganik naiz apartatu,
O ! hau da zoramendua !

O ezin, etc.

4. Bihotz, ihesleku segura
Kreatura guzientzat :
Amodiozko gaindidura,
Zer egiten dut zuretzat ?

○ ezin, etc.


5. Bihotz, guziz, ona zarena,
Hasten naiz zure maithatzen :
Zu gabe bizi daitekena
Osoki zait urrikaltze.

XXXXXX

Oi! Mirakuilu guziz

1. Oi! mirakuitu guziz espantagarria ;
Ogiaren iduriz Jesus estalia !
Hura dut adoratzeko aldare gainean ;
Hura bera dut jaten komunionean.
2. Ene begiek Jesus han ez dute ikhusten.
Gorputzeko sentsuek ez dute sentitzen ;
Bainan, duda gabe dut han dela sinhesten ;
Fedeak argiturik, han dute ezagutzen.
3. Jesusek egin zuen azken afaria,
Janharitzat emanik bere haragia ;
Haragi saindu hura jaten dut nik ere ;
Hura janik uste dut bizi bethiere.
4. Kurutzefikaturik, enetzat hil dena,
Lorioski phizturik, zerurat igana ;
Hura da sakramendu hortan ezarria ;
Hura bera lurrean ene janharria.
5. Biziaren arbola guziz aiphatua,
Baratze dohatxuan jaunak landatua,
Aurkhitzen da neuretzat komunionean.
Nik han dut edireiten ene bizi-zea.

6. Israelek jan zuen desertuan mana,
Gostu guziak bere baithan zituena ;
Jesusen gorputza da neure janharía,
Desertu huntan ene kontsolagarria.
7. Jainkoaren mendirat izan zen Eliaz,
Sainduki borthizturik jan zuen ogiaz ;
Jaten dut aldareko ogi sakratua ;
Hartaz nik ardietsi uste dut zerua.
8. Urrerat du lehia orkhaitz nekhatuak,
Beroz eta ihistariz betan penatuak ;
Hala dut desiratzen, Jauna, zure ogia ;
Othoi, sasía zazu enc gutizia.
9. Choriek badituzte beren ohantzeak,
Urzo tortoilek ere non eman umeak ;
Zure aldaretan da ene iheslekhua ;
Nik han dut edireiten ene sosegua.



Jainkoaren Ama

Errepika : Jainkoaren Ama, ama guziz ona
Zaitzagun maitha bethi, bethi (*bis*).

1. Guk gure amatzat hartzen zaitugu
Bethi zu maithatuz bizi nahi dugu.
Azken hatseraino kantatugo dugu
Bethi, bethi.
2. Hemengo hersturat ikhusten ditutzu
Zoin den lotsagarri bizitzea, dakigu
Beraz zure haurrak hemen beirazkitzu
Bethi, bethi.
3. Gu ganik lanjerak urruntarazkitzu
Satanen indarra garhait iezaguzu
Jesusek bethi zu, entzuten baitzaitu
Bethi, bethi.

4. Gure flakeziek amaren bihotza
Dute erdiraten hain amultsu baita
Gutaz izan zazu, bai urrikalmendu
Bethi, bethi.

XXXXXX

Angelus

1. Aingeru batek Mariari
Dio graziaz bethea,
Zeruko Jinko semeari
Emanen duzu sortzea (*bis*).
2. Yainkoaren nahi saindua
Ni baitan dadin egina,
Izan nadien amatua,
Bainan geldituz Birjina (*bis*).
3. Orduan Berbo Dibinoa
Gorphutz batez da beztitzen,
Oi! ontasun egiazkoa,
Yauna gurekin egoiten (*bis*).
4. Othoitz zazu zure semea,
Gure ama amultsua,
Izan dezagun fagorea
Ardiesteko zerua (*bis*).

XXXXXX

Purgatorioaz


Airea: Othe da deus nesesario.

1. Oi ! arima Jainkoaz onhetsia,
Orhoit hadi badela lekhu bat,
Hemen arras zeruko justizia
Satisfatu ez duenarentzat.

Errepika

O Jésus ! O Jésus ! urrikalmendu heientzat. (*Berriz*).

2. Hurbil hadi purgatoriotarat,
Jainko botherea bera denak,
Egin duen suzko leze hartarat ;
Entzunen tuk aihenik minenak.
3. Oi ! menturaz, gure adiskideak
Gure gatik dire punituak ;
Gure hauzo, burhaso, abaideak
Gure faltaz, sutan hondatuak.
4. Zuek, gure adiskide maiteak,
Diote maiz, nigar marrasketan,
Othoitz, barur eta karitateak
Egitzue gure fagoretan.
5. Othoi, Jauna, othoi, urrikalmendu
Purgatoriotan daudezenez ;
Darotzugu galdetzen barkhamendu
Heien mundu huntako hobenez.
6. Bara zaite, hekier jazartzetik ;
Gehiago ez utz hek erretzen ;
Ah ! has beitez, atherarik su-petik,
Zutaz, Jauna, zeruan gozatzen.



Zerua Saritzat

Errepika.

Zerua, zerua,
Zerua saritzat (*bis*).

1

Zerua saritzat,
Har kuraye Kristauk,
Hemengo nigarrentzat
Derauka Jainkoak.

2


Zerua saritzat,
Salba beraz arimak
Utziz mundutarrentzat.
Atsegin galkorrak.

3
Zerua saritzat,
Hots bada, o gaztea,
Dezazun bethikotzat
Maitha berthutea.

4
Zerua saritzat,
Hots bada aita amak,
Egin zuen haurrentzat
Othoitz karsuenak.

5
Zerua saritzat,
Ikhus zuen adinak
Iragan demborentzat
Egin nigar minak.

6
Zerua saritzat,
Nola ez boskaria,
Dukegu guretzat
Bethiko gloria.



LEHEN KOMUNIONEKO EGUNEAN

Besta eder huntara

Errepika : Besta eder huntara
Goazen oro betan
Sar bedi bat dedera
Alegrantzietan.

} *berriz.*

1. Iratzar, haur maiteak,
Bihotzak prepara,
Zuen Jainko Jaunaren
Errezebitzera.
2. Hau da egun ederra
Argitu zaukuna,
Gure ganat jiten da
Salbazaile Jauna.
3. Diotzogun Jesusi.
Eman orai danik
Esker et' amodio
Bihotzen erditik.
4. Eskerrak deraitzugu,
O gure Jainkoa,
Maithatuko zaitugu,
Jesus dibinoa.
5. Zato, bai har gaitzatu
Zureak gitutzu,
Gure egoitza zurekin
Egin nahi dugu.
6. Bainen flaku baikira
Zuk azkar gaitzatu,
Zurekin nahigira,
Begira gaitzatu.

Haurrak

1. Haurrak alcha bihotzak zuen Jainkoari ;
Humilia zaitezte Jesus maiteari.
2. Ahuspez suspiretan eta nigarretan
Gaude hemen guziak Jesusen oinetan.
3. Huna non ethorri den Jaunaren eguna ;
Zuen ganat heldu da Salbatzaile ona.
4. Oi ! egun dohatsua ethorri zukuna !
Nork dezake kompreni gure zoriona !
5. Othoitz zaitzue, haurrak, egun handi huntan
Zeruko dohatsuak zuen fagoretan.
6. O Birjina Maria, gure Ama ona,
Guretzat othoitz zazu zure Seme Jauna !
7. Ofentsatu tutzue zuen burhasoak !
Umilia zaitezte, egun, haur maiteak.
8. Ah ! othoi barkhamendu, aita eta ama !
Baketurik gohazen Jainkoaren gana !
9. Urrun zaitezte, haurrak, bekhatu gaichtotik.
Begiak apartatuz haren charmetarik.
10. Adio, bekhatua, adio bethikotz !
Jesus gana goazik orai sekulakots ?
11. Huna Jesus maitea mahain saindu huntan,
Non tutzun haur gazte hauk kharra bihotzetan.
12. Zato, Jesus maitea, zato, zato, zato !
Ez gure zoriona luza gehiago !
13. Jesusen Gorphutz eta Odol sakratuak.
Begira zaitzatela, gure haur maiteak !

Zer Zorion

1. Zer zorion, oi hau da fagorea
Horra, horra, zeruko Jainkoa
Jautsia da gure aldaretara
Gure gatik sakrifika!zerat.

Errepika. Zato, zato, ene Jesus maitea,
Zu zare, zu ene ontasuna !
Oi zer dohain ezin prezatuzkoa
Huna Jesus, ene zoriona (*bis*).

2. Sinhesten dut, ene Salbatzailea,
Zu zarela ostian emana.
Zeru gorenean zaren bezala
Majestateguzia bethea.
3. Jesus ona saindutasuna bera
Nola izan ni zure egoitza,
Nola beraz bekhatore tristea,
Errezibi ene Jaun handia.
4. Zutan, Jesus, dut ene esperantza,
Ah ! zuk hazten dautazu bihotza,
Hazkartua zure gorphutz sainduaz,
Eta zure odol sakratuaz.
5. Zure oinetan emaiten naiz ahuspez,
Urrikitan ene bekhatuez,
Aithortzen dut errebel bat naizela,
Orhoit zaite ene Aita zarela
6. Hasi nahi naiz zuretzat bizitzen
Bethikotzat natzaitzu emaiten.
Erre zazu beraz ene arima
Amodioz zuretzat, Jaun ona.

Alcha Goazen Bathaioko

Errepika. Arnegatzen dut
Bihotzez dut,
Satani behin bethitkotz ukhatzen
Zerua lurra lekhuko hartzen.

1

Alcha, goazen bathaioko
Ithurri, sakraturat,
Kristau egin gineneke
Bothuen berritzera.

2

Sortzeak ekharri zautan
Arrastaren hausteko,
Jaunaren legea eman
Zitzaitan behetzeko.
Arnegatzen dut...

3

Ardiesteko bizia,
Bermez nautzun hitzeman
Nuela lege guzia
Idukiko demboran.
Arnegatzen dut...

4

Botu haukien ondoan,
Apheza zen mintzatu
Ene ganik laster zohan
Satan zuen manatu.
Arnegatzen dut...

5

Alfer Satan errabian,
Bere arte galkorrez,
Dabila ene inguruan,
Ni atzeman beharrez.
Arnegatzen dut...

6

Munduak bere pompekin
Ez nau lilluratuko,
Haragiak plazerekin
Ez nau, ez beretuko.
Arnegatzen dut...

XXXXXX

Adio munduari


Giristino maiteak, hau da zoriona,
Gure aldaretan da Salbazaile ona.

Errepika :

Mundutik atsegin egiazko guti (*berriz*).
Bego beraz mundua mundutarren dako (*berritz*).

Adios bekhatua, adios bethikotz,
Jesus maitearenak gaituk sekulakotz.

Andredena Maria, Zeruko erregina
Othoi, o Ama ona, ez gu abandonatu.




Ama Birginari Konsekrazionea

Airea : Le ciel, le ciel en est le prix.

1. Kontsekratzen gizaitzu, Maria Birgina,
Zureak gituketzu hemendik aitzina.

Errepika : Gu oro, gu oro zureak Maria,
Gu oro, gu oro zureak bethikotz.

2. Eman izan zare guri Amatako,
Atchik gaitzatzu bethi zure haurrendako.
3. Oi zer urustasuna, zer plazer ezta,
Jainkoarem Ama guk Ama deitzea.
4. Jainko Jauna lekhuko, zin dugu egiten,
Leialki zaitugala bethi maithaturen.
5. Zuri ukho eginen dugun baino lehen
Orai danik hiltzea dautzugu galdatzen.




Ikhusiren zaitut

Airea : J'irai la voir un jour.

Errepika : Zeru goreanean }
Ikhusiren zaitut } *berriç.*

1. Ikhusiren zaitut Andre dena Maria,
Jesusen aldean zeruan jarria.

2. Iklusiren zaitut amultsuki onhesten
Agur bat lurretik zaitzunean heltzen.
3. Iklusiren zaitut fededunen artean
Bihotzak beirutzen garbitasunean.
4. Iklusiren zaitur Birjina Lurdekoa
Frantziaren dako othoizten Jainkoa.
5. Iklusiren zaitut zeruan ama ona,
Iklusiren zaitut, oi zer zoriona.



Koronaren ofreitzea


Errepika : Korona hau egun huntan
Ama har zazu
Hil ondoan zeruetan
Othoi eman behar dautazut (*bis*)..

1. Maite zaitugu Maria
Ororen gidatzalia.
2. Egun handi eder huntan
Gaude oro zure oinetan.
3. Lanjer guzien artean
Zure haurra da gerizean.
4. Munduan, zeru gainetik
Salba gaitzatzu gaizkitik.
5. Jesus dut hartzen lekhuko
Zaitudala maitatuko.
6. Jiten nizanian hiltzerat
Zauzkit, othoi, sahetserat.
7. Zure haurra entzun zazu
Ama ona, zuria duzu.

O Salutaris

O Salutaris Hostia !
Quæ cœli pandis ostium !
Bella premunt hostilia ;
Da robur, fer auxilium.


Uni trinoque Domino
Sit sempiterna gloria.
Qui vitam sine termino,
Nobis donet in patria.
Amen.



Tantum ergo

Tantum ergo sacra-
mentum
Veneremur cernui,
Et antiquum documentum
Novo cedat ritui :
Præstet fides supplemen-
tum
Sensuum defectui.

Genitori Genitoque
Laus et Jubilatio ;
Salus, honor, virtus quo-
que
Sit et benedictio ;
Procedenti ab utroque
Compar sit laudatio.
Amen.



Magnificat

Magnificat : * anima
mea Dominum ;
Et exultavit spiritus
meus * in Deo salutari
meo.

Quia respexit humili-
tatem anciliæ suæ : * ecce
enim ex hoc beatam medi-
cent omnes generationes.

Qui a fecit mihi magna
qui potens est ; * et sanc-
tum nomen ejus.

Et misericordia ejus a
progenie in progenies *
timentibus eum.

Fecit potentiam in bra-
chio suo : * dispersit su-
perbos mente cordi sui.

Deposuit potentes de
sede, * et exaltavit humi-
les.


Esurientes implevit bo-
nis, * et divites dimisit
inanes.

Suscepit Israël puerum
suum, * recordatus mise-
ricordiæ suæ.

Sicut locutus est ad
patres nostros, * Abraham
et semini ejus in sæcula.


Gloria Patri et Filio, *
et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio
et nunc et semper, * et
in sæcula sæculorum.
Amen.



Parce Domine

Parce, Domine, parce populo tuo,
Ne in æternum irascaris nobis.



Ave Maris Stella

Ave Maris stella
Dei Mater alma,
Atque semper virgo,
Felix cœli porta.

Sumens illud Ave
Gabrielis ore,
Funda nos in pace
Mutans Hevæ nomen.


Solve vincla reis
Profer lumen cœcis,
Mala nostra pelle,
Bona cuncta posce.
Monstra te esse Matrem,
Sumat per te preces !

Qui pro nobis natus,
Tulit esse tuus.

Virgo singularis,
Inter omnes mitis,
Nos culpis scilicet
Mites fac et castos.

Vitam præsta puram,
Iter para tutum,
Ut videntes Jesum,
Semper collætetur.

Sit laus Deo Patri,
Summo Christo decus,
Spiritui Sancto
Tribus honor unus. Amen.



MEZA SAINDUA ESPLIKATUA

Meza saindua da kalbarioko sacrificio bera, beraz ez du deusek hainbertze Jainkoa ohoratzen eta gure bekhatuen barkhamendua ardiesten. Hartarakotz behar dira aphezaren eta hobeki erraiteko Elizaren chede berak edo intentzionaek izan, eta ez bakarrik arrosorio erraiten harizan. Zoin gaizki litekeen beraz dem-bora sakratu hortan elheketa hartzia. Gauzak arras guti komprenitzen edo Federik ez delako seinalea liteke.

Gogo emazu apheza Jesukrichto bezala soin churi batez beztitua dela, kurutzéaren eta elhorrizko koronaren ichura ekhartzen dituela, lehena ornamentetan bertzea buruan.

Introit, aldarearen oinetan.

Aphezarekin burua aphalduz barkhamendu galdegizu kofesatzen niz edo kontrizionezko akta erranez.

Apheza goiti Joaitean.

Zuk ere gogoz pot emazu aldareari eta aldarean diren Erlikia saindueri. Galdegizu Meza ontsa entzuteko grazia.

Kirie.

Erazu emeki bedaratzi aldiz: Jauna urrikal zaite nitaz.

Gloria.

Jauna aingeruekin adoratzten zaitugu, laudatzen, glorifikatzen, zeren zu ziren bakarrik Jainko eta nausi guzien gainekoa.

Orazionea.

Egun lizak ohoratzen zaituen saindua nik ere ohoratzen zaitut, othoitz egizu neretzat.

Belchez denian meza, egizu othoitz Purgatorioko arimentzat erranez : Jauna, urrikalzaite arima juanez eta guziz ene ahidez, emozute phausu eta zorion eternala.

Epichtola.

Jauna sinhesten ditut Apostoluek lehen eta orai Eliza sailduak erraiten dituzten erakaspenak. Jondoni Paulok ichkiribatzen zituen hitz hauk gogoan nahi ditut eman : « Zuek Jainkoaz hautatuak, saildutuak, maithatuak baitzaezte maitha, zazue modestia, pazientzia, elgar jasan zazue, elgarri ongi egin zazue, Jainkoak egin dautzueten bezala, bainan guzien gainetik maitha zazue Jainkoa hori baita perfezione guzien lokharria.

Ebanjelioa.

Egizkitzu hiru kurutze seinale, bat kopetau, bertzea ahoan, bertzea bihotzean erranez : Jauna, garbi ene izpiritua, ene mihia, ene bizotza; Errazu gero Sinhesten dut Ebanjelio Saindua. Harentzat nahi niz bizi eta hil, zeren zuk zerutik ekharria eta predikatua baita.

Kredo.

Errazu sinhesten dut.

Ofertorioa.

Jauna ofreitzen dauzkitzut hostia hori, arno hori, hoiekin batean ene arima, gorphutza, izaite guzia. Nahi ditut oro garbi izan ditezen, aphezak erhiak garbitzen dituen bezala.

Suscipiat.

Apneza itzulita errazu betterarekin : Jinkoak errezebi dezala zure eskuetarik sakrifizio hori, haren izen saindua izan dadien ohoratua, glorifikatua, eta ere eman dietzagun behar ditugun on guziak.

Sanctus.

Saindua, saindua, saindua da gure Jainkoa. Haren handitasunak bethetzen ditu zeru lurak. Benedikatua izan bedi Jinkoaren izinean heldu dena.

Prepara zaite belhaunikaturik Jesus-Kristoren jiteari, othoitz egizu bizi diren jendentzat eta guziz zure ahidentzat.

Sagara.

Jesus hor sortzen bezala da, ostian emaiten da, behazozu, ez burua apha eta errazu aphezak ostia saindua eta kalitza altchatzen dituelarik : Ene Nausia eta ene Jainkoa. Irabazikotutzu hola eginez 7 urtheren indulgentzia. Egon zaite gero Madalena egon zen bezela kurutzearen oinetan barkhamendu galdeginez zure eta munduko bekhatuentzat. Othoitz egizu arima juanentzat ere.

Pater.

Erazu phausatuz : Gure aita.

Agnus Dei.

Jaunaren bildotsa munduko bekhatuak barkhatzen ditutzuna, urrikal zaite gutaz (3 aldiz).

Prepara zaite orai Komunione sainduaren egitea bederen bihotzez. Errazu : Sinhesten dut hor zarela Jesus maitea, adoratzen zaitut, maite zaitut.

Domine, non sum dignus.

Jauna ez naiz digne zure errezebitzeko, baina errazu baxharrik hitz bat eta ene arima sendatua, garbitua izanen da (3 aldiz). Gero kofesatzen niz eta erezebi zazu aphezaren benediziona bekhatu benialak barkhatzen baititu. Eta azkenean: Zato, zato Jesus maitea, hanitz desiratzen dut zure erezebitzea.

Orazioneak.

Eskerrak eman Jainkoari. Galda graziak eta zeruko loria. Erratzu zombait agur Maria.

Benediziona.

Egin ontsa kurutzearen seinalea.

Ebanjelioa.

Berritz hiru kurutzeak kopetan, ahoan, bihotzean. Belhaunika erranez: adoratzen zaitut Berbo dibinoa zeren enetzat gizon egin zaren.

Azken hiru Agur Mariak eta Salve gora, aphezari erepostua eman ez Eliza ama sainduarentzat.

Meza sailduki entzun duzu. Jondoni Juani apostolua edo santa Madalena bezala egon zare khurutzearen oinetean. Bethi hola entzun zazu Meza, nun ez duzun osoki irakurtzen.

Oraino mezaren entzuteko bertze bi molde.

Jesukrichtorekin adoratu duzu Jainko aita hastean, gero barkhamendu galdeginen, eskerrak eman eta zuhonik komuniatuz behartutzun grazia guziak galdeginen.

Mezako dembora da Jesukrichtoren passionearen gogoan ibiltzeko dembora. Hortarakotz, iduritu behar zaitzu liburu bat baduzula eskuan, lehen phartea belza, bigarrena gorria, hirugarrena churia.

Lehenean, santusartio ikhusaitzu zure eta munduko bekhatu **beltzak**, barkhamendu galdegiteko oroz. — Bigarrenean, Pater artio ikhusazu Jesukrichto hila, kurutzea eta lurra harren odolaz **gorrituak**. Ensezaite amodio handi baten phizteaz bihotzean, Santa Madalena bezala. — Hirugarren phartean, ikhusazu bildoch **churi** bat bezala Jesus ostia sainduan. Zure ganat desiratzen du jitia. Komuniazazu bederen izpiritualki edo desiaz. Nola eginenez zure bekhatu benialak barkhatuak dira.



Orok soinean ekhar dezagun Jesusen Bihotz Sakratuaren habitua eta eman etchekeo borthan harren potreta.

IMPRIMATUR: DIHARCE, v. c.



KAUSI-BIDEA

No.	Plamoak
1. Zer da Misioea?.....	4
2. Zato, Izpiritua.....	5
3. Misioen ethortzeaz.....	5
4. Gauza Beraz (Zato, bekhatorea).....	6
5. Eskerren emaiteko Misioeaz.....	7
6. Salbamenduaz.....	8
7. Bekhatuaz.....	8
8. Jinkoaren deiaz.....	10
9. Heriotzeaz.....	10
10. Jujamendu partikularratz.....	11
11. Jujamendu jeneralaz, Aditzen da trompeta....	12
12. Ifernuaz.....	15
13. Kontrizioeaz.....	17
14. Gauza Beraz (Barkha, Jauna).....	17
15. Jesus Kurutzera.....	18
16. Uhalde baten.....	19
17. Chede onez.....	20
18. Manamenduez.....	21
19. Bihotz Jesus Maitearena.....	23
20. Oi! Mirakuitu guziz.....	24
21. Jainkoaren Ama.....	25
22. Angelus.....	26
23. Purgatorioaz.....	26
24. Zerua saritzat.....	27
25. Besta eder huntara.....	28
26. Haurrak.....	29
27. Zer zorion.....	30
28. Aleha goazen bathaioko.....	31
29. Adio munduari.....	31
30. Ama Birginari Konsekrazioea.....	32
31. Ikhusiren zaitut.....	32
32. Koronaren ofreitzea.....	33
33. O Salutaris.....	34
34. Tantum ergo.....	34
35. Magnificat.....	34
36. Parcè, Domine.....	35
37. Ave Maris Stella.....	35
39. Meza Saindua esplikatua.....	36

A.T.
440